




DIBORTZIOA DELA ETA...

MARIASUN LANDA

Guri tokatu zaizkigun garaiak ez dira txantxetakoak... Iragan den mundu batetatik jaurtikiak eta giza-eredu berri bat asmatu ezinik gabiltzenok, badakigu, jakin, tranziziozko garaiek zer supositzen duten norberaren orekarako.

Franko hil ondoren, tunel baten irteeran geundela iruditu bazitzaigun ere, joan diren urteek, tunel hori luzatu eta luzatu egiten dela, ondo frogatu digute. Urtè nahastu batzuren ondoren, ia etorkizunarik gabe gelditu gara, erdi erreta, desorientaturik... Nork bere buruari begiratzeko garaia etorri dela dirudi... Krisis famatua arlo guztietan egonik, nork bere bizitzaren balantze bat egiteko beharra sentitzen da.. Ez da gure gizartea guk esperatzen genuen bezala iraulia izan, ez dugu «rupturarik» ezagutu eta tenebrismoaren ondoren, desen-kanto ditzosoaren dinamikan murgildurik aurkitu gara.

Guzti honek eragin duela egungo afektibo harremanetan, garbi dago.. Inguru hotz eta anker batetako zauriak sendatzeko, maitasun uneak gero eta urriagoak bihurtu zaizkigu, familia bera eta lehenagoko baloreak kolokan bait daude. Egun, familia eta pareja bera, lehertzen, desintegratzen ari direla diote batzuk

eskandalizaturik... Gainera, datorren dibortzioarekin, zer ez da gertatuko? marmartzen dute..

Neri, pertsonalki, ez dit familiaren desintegrapenak gehiegi kezkatzen, harreman afektiboentzako alternatiba berrien eza baizik. Dibortzioa, bera, ezkontzarekin lotuta dagoen esku-bide demokratiko bat bezala, jo beharko genuke. Txanpon bateko bi alderdiak bezala... Dibortzioak, ez ditu ezkontzak dituen hutsune eta akatsak konpontzen .. ez ditu, berez, instituzioak kritikatzeko. Kontrato guztietan gertatzen den bezala, kontrato hori deseustatzeko posibilitatea ematen du, besterik ez...

Halaere, idatziz hain erreza gertatzen dena, kontextu garrantz, latz eta depresibo batetan bizi ohi da kasu gehienetan. Bi

pertsonen artean, amodioa agortzen denean, oroitmenak lohiatu eta elkar ezin ulertu gertatzen denean, dibortzioaren, separazioaren posibilitatea sortzen da. Eta horrekin batera, frakasoaren ideia. FRAKASOA, maiuzkulaz, garai batetan, MAITE ZAITUT, maiuzkulaz esan ohi zuten bezala.

Amodioa eta ezkontza, zerbait absolutotzat kontsideratua dagoelako, dibortzioa, frakaso absoluto bat bezala bizi ohi da. Orduan hasten dira komeriak eta elkarrekiko gorrotoak, errankunak eta bengantzak..

Izan ere, gutti dira, apartatu ondoren adiskidetasunik gordetzen duten parejak. Zeren eta, antidi-bortziztekin pentsatzen dutenaren aurka, dibortziaz oso zaila da. Are gehiago, familiak hainbat garrantzia duen Euskal Herri honetan.. Denborarekin, onartuko da batengandik askatzea beste batekin ezkontzeko, baina ezkontzaren instituzioa kritikatu, bere bizitza libreki eramango duena, horri ez zaio hain errez barkatuko, baizik eta marginatuen artea bultzatuko zaio.

Gure gizartea, pareja eta familia monogamikoan oinarrituta dago eta dibortzioak, besterik gabe, ez du hau aldatuko. Beste harreman berri eta libreagoak jo-